Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala — Boletín Oficial de Gipuzkoa

2021eko otsailaren 22a, astelehena — 34 — Lunes, a 22 de febrero de 2021



## GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

## EKONOMIA SUSTAPENEKO, TURISMOKO ETA LANDA INGURUNEKO DEPARTAMENTUA

*Gipuzkoako Lurralde Historikoko landa bideetarako diru laguntzen oinarri arautzaileak eta 2021eko deialdia.*

Diputatuen Kontseiluak 2021eko otsailaren 16ko bileran honako erabakia hartu du:

«Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalek eta tokiko entitate txikiek gabezia handiak pairatzen dituzte landa azpiegituretan, eta horien artean daude landa bideak. Oro har, entitate horiek zailtasun handiak dituzte beren aurrekontuetatik azpiegitura horien eraikuntza eta kontserbaziorako inbertsioei aurre egiteko. Hori dela eta, Gipuzkoako Foru Aldundiak, obra horiek finantzatzeko dirulaguntzak eman izan ditu.

Jarduera lerro horri helduz, erabaki honen bidez, onartzen dira, batetik, Gipuzkoako Lurralde Historikoko landa bideetarako laguntzak arautzeko oinarriak, eta, bestetik, laguntza horien aurtengo deialdia.

Era berean, erabaki honen bidez aipatu dirulaguntzen 2021eko deialdia onartzen da. Aurreikusitako gastua inbertsioen gauzatzeari hobeto egokitzeko eta dirulaguntzak banatzeko erabakia aurreratu ahal izateko, dagokion gastu espedientea aldez aurretik bideratzea aurreikusten da, abuztuaren 2ko 37/2006 Foru Dekretuan ezarritakoari jarraikiz.

Horretarako, Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko Departamentuaren aurtengo aurrekontuetan 1.500.000,00 euro daude jasota.

Martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzkoak, 16.1. artikuluan ezartzen duenaren arabera, Diputatuen Kontseiluari dagokio dirulaguntza hauen oinarri arautzaileak onartzea.

Dirulaguntza lerro hau Gipuzkoako Foru Aldundiaren 2020-2023 Dirulaguntzen Plan Estrategikoan sartuta dago.

Hori horrela, Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko Departamentuko foru diputatuak proposatuta, eta eztabaidatu ondoren, Diputatuen Kontseiluak

ERABAKITZEN DU

*Lehenengo.* Onartzea Gipuzkoako Lurralde Historikoko landa bideetarako dirulaguntzen oinarri arautzaileak: erabaki honen I. eranskinean jaso direnak.

*Bigarren.* Onartzea dirulaguntza horien 2021eko deialdia: erabaki honen II. eranskinean jaso dena.

*Hirugarren.* Onartzea aipatu deialdiari dagokion gastu espedientearen aldez aurreko tramitazioa, 1.500.000,00 euroko zen-

## DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

## DEPARTAMENTO DE PROMOCIÓN ECONÓMICA, TURISMO Y MEDIO RURAL

*Bases reguladoras y convocatoria 2021 del otorgamiento de ayudas para caminos rurales del Territorio Histórico de Gipuzkoa.*

El Consejo de Gobierno Foral, en su reunión de 16 de febrero de 2021, ha adoptado el siguiente acuerdo:

«Los municipios y entidades locales menores del Territorio Histórico de Gipuzkoa presentan importantes carencias en diversas infraestructuras rurales, entre las que se encuentran los caminos rurales. Generalmente dichas entidades tienen grandes dificultades en afrontar desde sus presupuestos muy ajustados, inversiones en construcción y conservación de estas infraestructuras, por lo que la Diputación Foral de Gipuzkoa ha venido concediendo subvenciones para la financiación de estas obras.

Siguiendo esa línea de actuación, mediante el presente acuerdo se aprueban las bases reguladoras de ayudas para caminos rurales del Territorio Histórico de Gipuzkoa, así como la convocatoria de dichas ayudas para el presente ejercicio.

Asimismo, mediante el presente acuerdo se aprueba la convocatoria 2021 de las citadas ayudas. Para una mejor adecuación del gasto previsto a la ejecución de las inversiones y al objeto de adelantar la resolución de concesión de las subvenciones, se prevé la tramitación anticipada del expediente de gasto correspondiente, de acuerdo con lo establecido en el Decreto Foral 37/2006, de 2 de agosto.

Para la financiación de dicho régimen de ayudas, en los presupuestos del Departamento de Promoción Económica, Turismo y Medio Rural del presente ejercicio se ha consignado un total de 1.500.000,00 euros.

Conforme al artículo 16.1 de la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa, corresponde al Consejo de Gobierno Foral la competencia para la aprobación de las bases reguladoras de la concesión de estas ayudas.

La presente línea de subvención se encuentra incluida en el Plan Estratégico de Subvenciones 2020-2023 de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

En su virtud, este Consejo de Gobierno Foral, previa deliberación y a propuesta del diputado foral del Departamento de Promoción Económica, Turismo y Medio Rural,

ACUERDA

*Primero.* Aprobar las bases reguladoras del otorgamiento de ayudas para caminos rurales del Territorio Histórico de Gipuzkoa; se acompañan como anexo I al presente acuerdo.

*Segundo.* Aprobar la convocatoria de 2021 de dichas ayudas; se acompaña como anexo II al presente acuerdo.

*Tercero.* Aprobar la tramitación anticipada del expediente de gasto correspondiente a la citada convocatoria, que alcanza

EK\CV GAO-I-2021-01194

batekoa duena, 2021eko ekitaldiko Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko Departamentuaren ondorengo partiden kargura:

1.0440.400.761.01.01.2021: 1.200.000,00 euro.

5.0440.400.761.01.01.2022: 300.000 euro.

Edonola ere, espedientea aldez aurretik tramitatzen denez, dirulaguntzak eman ahal izateko ezinbestekoa izango da haiek ematea erabakitzen den unean kreditu egoki eta nahikoa egotea Gipuzkoako Lurralde Historikoaren 2021. urterako aurrekontu orokorretan.

Baldin 2021eko aurrekontuen foru arauan onartzen diren kredituak hasieran aurreikusitakoak baino handiagoak badira, organo kudeatzaileak hartuko du deialdi honetan aplikatzeari buruzko erabakia. Aplikatzea erabakiz gero, beste deialdirik egin gabe, dagokion gastu espedientea tramitatu beharko du dirulaguntza emateko ebazpena eman aurretik.

Ildo beretik, baimendutako gastua handitu ahal izango du aldaketaren zenbatekoaren arabera eskumena esleituta duen organoak, dirulaguntza ematea ebatzi baino lehen. Dena den, horrek ez du beste deialdi bat egitea ekarriko.

*Laugarren.* Ahalmena ematen zaio Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko Departamentuko foru diputatuari Gipuzkoako Lurralde Historikoaren 2021. urterako aurrekontu orokorrak onartzen direnean behar diren gastuak baimendu ditzan, behar adina kreditu egokia dagoela egiaztatu ondoren.

Erabaki hau behin betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Erabaki honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkeztu ahal izango dute interesdunek, Donostiako Administrazioarekiko Auzietako epaitegietan, argitaratu eta biharamunetik hasita bi hilabeteko epean. Bide hori erabili aurretik, berraztertzeko errekurtsoa aurkez diezaiokete partikularrek Diputatuen Kontseiluari, aipatutako egunetik hasita hilabeteko epean. Dena dela, egokitzat hartutako beste edozein ere aurkez daiteke.»

Donostia, 2021eko otsailaren 16a.—Segundo Díez Molinero, idazkari teknikoa. (1194)

I. ERANSKINA

*Gipuzkoako Lurralde Historikoko landa bideetarako dirulaguntzen oinarri arautzaileak.*

*1. Dirulaguntzaren xedea.*

1.1. Xedea eta jarduketa esparrua.

Laguntza hauen xedea da landa ingurunean bizi direnen kalitatea hobetzea eta lehenengo sektorearen garapena sustatzea, hainbat zerbitzu eskura ditzaten, irisgarritasuna eta, oro har, garraioa hobetuz eta nekazaritza-azalerak hobeto ustiatzeko aukera emanez.

1.2. Diruz lagundu daitezkeen jarduketak.

— Landa bide berriak egitea, lehenengo asfaltatzea edo hormigonatzea.

— Nekazaritza ustiategietara doazen landa bideak konpontzea, egokitzea eta hobetzea.

— Landa bideak eta nekazaritza ustiategietarako sarrerak seinaleztatzea.

1.3. Diruz lagundu daitezkeen gastuak.

Orokorrean, diruz lagundu ahal izango dira laguntza deialdiaren urteko urtarrilaren 1etik aurrera gauzatutako inbertsioak. Dena dela, aurreko urtean egindakoak ere lagundu ahal izango dira, hiru kasu hauetan:

un importe de 1.500.000,00 euros, con cargo a las siguientes partidas presupuestarias del ejercicio 2021 del Departamento de Promoción Económica, Turismo y Medio Rural:

1.0440.400.761.01.01.2021: 1.200.000,00 euros.

5.0440.400.761.01.01.2022: 300.000 euros.

En todo caso, y dada la tramitación anticipada del expediente, la concesión de las subvenciones queda condicionada a la existencia de crédito adecuado y suficiente en los presupuestos generales del Territorio Histórico de Gipuzkoa para el año 2021 en el momento de la resolución de la concesión.

En el supuesto en que los créditos presupuestarios que resulten aprobados en la norma foral de presupuestos para 2021 fueran superiores a las cuantías inicialmente estimadas, el órgano gestor podrá decidir sobre su aplicación a la convocatoria, previa tramitación del correspondiente expediente de gasto antes de la resolución, sin necesidad de nueva convocatoria.

Asimismo, el importe del gasto autorizado podrá ser incrementado, con carácter previo a la resolución de las solicitudes presentadas, por el órgano que tenga atribuida la competencia por razón de la cuantía de la modificación, sin que ello dé lugar a una nueva convocatoria.

*Cuarto.* Se faculta al diputado foral del Departamento de Promoción Económica, Turismo y Medio Rural para autorizar los gastos que correspondan, una vez aprobados los Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Gipuzkoa para el año 2021 y comprobada la existencia de crédito adecuado y suficiente.

El presente acuerdo es definitivo y pone fin a la vía administrativa, pudiendo las personas interesadas interponer contra el mismo recurso contencioso-administrativo ante los Juzgados de lo Contencioso Administrativo de San Sebastián, en el plazo de dos meses desde el día siguiente al de su publicación. Con carácter previo a la utilización de dicha vía, las personas particulares podrán interponer recurso de reposición ante este Consejo de Gobierno Foral en el plazo de un mes desde la fecha antes citada, todo ello sin perjuicio de la interposición de cualquier otro que se estime oportuno.»

San Sebastián, a 16 de febrero de 2021.—El secretario técnico, Segundo Díez Molinero. (1194)

ANEXO I

*Bases reguladoras del otorgamiento de ayudas para caminos rurales del Territorio Histórico de Gipuzkoa.*

*1. Objeto de la subvención.*

1.1. Objetivos y ámbito de actuación.

Estas ayudas tienen como finalidad mejorar la calidad de vida de la población rural y favorecer el desarrollo del sector primario, mejorando las vías de acceso a los diferentes servicios, mejorando la accesibilidad y el transporte en general para sus usuarios y posibilitando una mejor explotación de las superficies agrarias.

1.2. Actuaciones subvencionables.

— Construcción de nuevos caminos rurales, primer asfaltado u hormigonado.

— Reparación, adecuación y mejora de caminos rurales a explotaciones agrarias.

— Señalización de caminos rurales, acceso a explotaciones agrarias.

1.3. Gastos subvencionables.

Con carácter general, serán subvencionables las inversiones en caminos rurales ejecutadas a partir del 1 de enero del año de convocatoria de las ayudas. No obstante, serán también subvencionables las realizadas en el año inmediatamente anterior en estos tres casos:

EK\CV GAO-I-2021-01194

— Urte horretan ez bazen deialdirik egin edo, kasua bada, egindakoa bertan behera utzi bazen.

— Urte horretako deialdian dagokion biderako laguntza eskaera aurkeztu bazen eta dirulaguntza jaso gabe geratu bazen aurrekontu baliabideen faltagatik.

Edonola ere, aurreko kasuetako proiektuak dituzten eskatzaileek eskaera berri bat egin beharko dute deialdi berrian parte hartu nahi izan ezkero.

— Urte horretako deialdiko eskaeren aurkezpen epea amaitu ondoren gertatutako aparteko euriteek edo beste hondamendi naturalek bidean eragindako egiturazko kalteak konpontzeko kasuetan, konponketa horiek premiazkoak zirenean erabiltzaileentzako arriskua zegoelako.

Diruz lagundu daitezke landa bideak eraiki, egokitu, konpondu, hobetu eta seinaleztatzeko lanen kostuak.

Balio Erantsiaren gaineko Zerga diruz lagundu daitekeen kontzeptua da, entitate onuradunak benetan ordaindu badu; inoiz ez da gastu lagungarritzat hartuko ondoren berreskuratu edo konpentsatu egin daitekeenean.

Diruz lagundu daitezkeen proiektuetako gutxieneko inbertsioa (aurrekontua) dagokion deialdian ezarriko da.

Entitate bakoitzak eskaera bakarra egingo du, eta bertan sartuko ditu laguntzeko eskatutako bideak. Deialdi bakoitzera bost proiektu aurkeztuko dira gehienez. Proiektuak banan bana baloratuko dira landa bide bakoitzari dagokionez.

1.4. Baztertutako inbertsioak.

Ez dira diruz lagunduko aurreko puntuko jarduketekin lotutako proiektuen idazketagatik eta obren zuzendaritzagatik ordainduko diren ordainsariak.

*2. Dirulaguntzen onuradunak.*

Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalek eta tokiko erakunde txikiek (landa bideen titularrak edo bideen erabilera publikoa egiaztatzen dutenak), jaso ahalko dituzte oinarri hauetan erregulatutako laguntzak, baldin eta betetzen badute, martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzkoak, 12. artikuluan, onuradun izaera lortzeko ezein debekurik ez izateko ezarritako betebeharra.

Erakundeak erantzukizuneko aitorpena egingo du onuradun izaera lortzeko ezinbesteko baldintzak betetzen dituela egiaztatzeko.

*3. Eskaerak aurkezteko modua eta epea.*

3.1. Eskaerak, ezarritako dokumentazioarekin batera, Internet bidez aurkeztuko dira nahitaez, Gipuzkoako Foru Aldundiko egoitza elektronikoaren (https://egoitza.gipuzkoa.eus) bitartez, dirulaguntzen atarian sartu (sinadura elektronikoaren edo pasahitzaren bidez) eta ondorio hauetarako bertan eskuragarri jarritako berariazko inprimakia erabiliz. Eskaerak eta dokumentazio osagarria aurkezterakoan foru dekretu hau bete behar da: irailaren 28ko 23/2010 Foru Dekretua, Foru Administrazioan baliabide elektronikoen erabilera arautzen duena.

3.2. Deialdi bakoitzaren informazioa eta eskaera orri normalizatuak eskuragarri egongo dira egoitza elektronikoan (https://egoitza.gipuzkoa.eus).

3.3. Eskaerak aurkezteko epea eta horri erantsi beharreko dokumentazioa deialdian ezarriko dira.

— En caso de que no se hubiera efectuado convocatoria ese año o, en su caso, se hubiera dejado sin efecto la que se hubiera podido efectuar.

— En caso de que se hubiera presentado solicitud de ayuda para el camino correspondiente en la convocatoria de ese año y no hubiera recibido subvención por falta de disponibilidad presupuestaria.

En todo caso, los solicitantes que tengan proyectos en los supuestos anteriores, deberán realizar una nueva solicitud en caso de querer participar en la nueva convocatoria.

— En los casos de reparación de daños estructurales del camino causados por lluvias excepcionales u otras catástrofes naturales acaecidas una vez finalizado el plazo de presentación en la convocatoria de ese año y que requirieran una actuación urgente por suponer un peligro para el tránsito de las personas usuarias.

Serán subvencionables los costos de las obras de construcción, adecuación, reparación, mejora y señalización de los caminos rurales.

El Impuesto sobre el Valor Añadido será subvencionable cuando la entidad beneficiaria lo abone efectivamente; en ningún caso se considerará gasto subvencionable cuando sea susceptible de recuperación o compensación.

La inversión (presupuesto) mínima de los proyectos subvencionados se establecerá en la convocatoria correspondiente.

Únicamente se admitirá una solicitud por entidad, en la que se incluirán los caminos para los que se solicita subvención, con un máximo de cinco proyectos por convocatoria. La valoración de los proyectos se efectuará de forma independiente para cada uno de los caminos rurales.

1.4. Gastos excluidos.

No se subvencionarán los honorarios correspondientes a la redacción de los proyectos y dirección de las obras relacionadas con las actuaciones del apartado anterior.

*2. Personas beneficiarias.*

Serán entidades beneficiarias de estas ayudas los municipios y entidades locales menores titulares de los caminos rurales, o que al menos puedan acreditar el uso público de los mismos, del Territorio Histórico de Gipuzkoa, siempre que no estén incursos en ninguna de las prohibiciones para obtener la condición de entidad beneficiaria previstas en el artículo 12 de la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

La justificación por parte de las entidades de no estar incursas en las prohibiciones para obtener la condición de entidad beneficiaria podrá realizarse mediante declaración responsable.

*3. Forma y plazo de presentación de solicitudes.*

3.1. Las solicitudes, junto con el resto de documentación que deba acompañarlas, se presentarán obligatoriamente vía Internet, a través de la sede electrónica de la Diputación Foral de Gipuzkoa (https://egoitza.gipuzkoa.eus), accediendo al portal de subvenciones mediante la firma electrónica o la clave operativa, y utilizando el formulario específico disponible a estos efectos. Esta presentación de las solicitudes y de la documentación complementaria se realizará en los términos previstos en el Decreto Foral 23/2010, de 28 de septiembre, por el que se regula la utilización de medios electrónicos en el ámbito de la Administración Foral.

3.2. La información de cada convocatoria y los impresos normalizados de solicitud estarán disponibles en la sede electrónica (https://egoitza.gipuzkoa.eus).

3.3. El plazo de presentación de solicitudes y la documentación que deba acompañarlas se fijarán en la convocatoria.

EK\CV GAO-I-2021-01194

Salbuespenez, eskaerak aurkezteko ezarritako epea irekita mantenduko da, deialdia ebatzi arte, eskaeren xedea denean aipatu epea amaitu ondoren gertatutako aparteko euriteek edo beste hondamendi naturalek bidean eragindako egiturazko kalteak konpontzea, eta konponketa horiek premiazkoak direnean erabiltzaileentzako arriskua dagoelako.

*4. Akatsak zuzentzea.*

Eskariak edo horrekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioak ez badituzte identifikazio datu guztiak, edo akatsen bat baldin badute, edo osatzeke baldin badaude, 10 egun balioduneko epean akats horiek guztiak konpontzeko eskatuko zaio eskatzaileari, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearenak 68.1 artikuluan ezarritakoari jarraikiz; eta ohartaraziko zaio ezen, eskatutakoa egin ezean, eskaeran atzera egin duela ulertuko dela, aipatutako legearen 21.1 artikuluan aurreikusitako moduan.

*5. Emateko prozedura.*

Dirulaguntzak emateko prozedura lehia sistema izango da, dagoen kredituaren mugen barruan. Prozedura ofizioz hasiko da, deialdi publiko bidez; deialdia organo eskumendunak onartuko du eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

*6. Finantzazioa.*

Dirulaguntzak Gipuzkoako Lurralde Historikoko Aurrekontu Orokorren kargura finantzatuko dira. Deialdiak ezarriko du dirulaguntzak aurrekontuko zein kreditu zehatzen kontura izango diren.

*7. Prozedura antolatu eta bideratzeko eskumena duten organoak.*

7.1. Dirulaguntza horiek emateko prozedura bideratzea Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko Departamentuko Laguntzen eta Erregistroen Zerbitzuari dagokio.

7.2. Aurkeztutako eskaerak aztertzeko eta ebaluatzeko ebaluazio batzorde bat eratuko da; eta batzorde horrek ebazpen proposamen bat emango du, egindako ebaluazioaren emaitza zehaztuta; eta organo eskumendunari bidaliko dio, onar dezan. Ebaluazio batzorde hori ondorengo kideez osatuta egongo da:

— Nekazaritzako eta Lurralde Orekako zuzendari nagusia.

— Laguntzen eta Erregistroen Zerbitzuko zerbitzuburua.

— Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko teknikari bat.

Batzorde horrek bidezko irizten dituen aholkularitza eta txosten teknikoak eskatu ahal izango ditu aurkeztutako eskaerak behar bezala baloratzeko.

*8. Balorazio irizpideak.*

Aurkeztutako eskaerak baloratzeko, Ebaluazio Batzordeak irizpide hauek kontuan hartuko ditu:

1) Interesa:

— Interes orokorreko landa bideak (nekazaritza ustiategietarako sarbideak: 4 baino gehiago): 50 puntu.

— Interes orokorreko landa bideak (nekazaritza ustiategietarako sarbideak: 2-4): 40 puntu.

— Interes partikularreko landa bideak (nekazaritza ustiategi baterako sarbidea): 25 puntu.

2) Udalerriaren hedadura $km^2$-etan:

— 15 baino gutxiago: 10 puntu.

Excepcionalmente el plazo de presentación establecido en la convocatoria permanecerá abierto hasta la resolución de la misma, cuando las solicitudes tengan por objeto la reparación de daños estructurales del camino causados por lluvias excepcionales u otras catástrofes naturales acaecidas una vez finalizado el citado plazo y que requieran una actuación urgente por suponer un peligro para el tránsito de las personas usuarias.

*4. Subsanación.*

Si la solicitud o la documentación que debe acompañarla no reunieran los datos de identificación, adolecieran de algún error o fueran incompletas, se requerirá a la entidad solicitante, de acuerdo con lo establecido en el artículo 68.1 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, para que, en el plazo de diez días hábiles, subsane los defectos detectados, con indicación de que, si así no lo hiciera, se le tendrá por desistida de su petición, en los términos previstos en el artículo 21.1 de ese mismo texto legal.

*5. Procedimiento de concesión.*

La concesión de las ayudas se realizará por el procedimiento de concurrencia competitiva, dentro de los límites del crédito existente, y se iniciará de oficio mediante convocatoria pública aprobada por el órgano competente y publicada en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

*6. Financiación.*

Las subvenciones que, en su caso, puedan otorgarse se financiarán con cargo a los Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Gipuzkoa. La convocatoria establecerá los créditos presupuestarios concretos con cargo a los cuales se financiarán las subvenciones.

*7. Órganos competentes para la ordenación e instrucción del procedimiento.*

7.1. La instrucción del procedimiento de concesión de estas subvenciones corresponderá al Servicio de Ayudas y Registros del Departamento de Promoción Económica, Turismo y Medio Rural.

7.2. Para el análisis y evaluación de las solicitudes presentadas se constituirá una Comisión de Valoración, que emitirá una propuesta de resolución en la que se concretará el resultado de la evaluación efectuada y será elevada al órgano competente para su aprobación. Dicha Comisión estará compuesta por los miembros que figuran a continuación:

— El director o directora general de Agricultura y Equilibrio Territorial.

— El jefe o jefa del Servicio de Ayudas y Registros.

— Un/a técnico/a del Departamento de Promoción Económica, Turismo y Medio Rural.

La Comisión de Valoración podrá solicitar el asesoramiento y la emisión de los informes técnicos pertinentes para una adecuada valoración de las solicitudes presentadas.

*8. Criterios de valoración.*

Para la valoración de las solicitudes presentadas, la Comisión de Valoración tendrá en cuenta los criterios que se detallan a continuación:

1) Interés:

— Caminos rurales de interés general (acceso a más de 4 explotaciones agrarias): 50 puntos.

— Caminos rurales de interés general (acceso a 2-4 explotaciones agrarias): 40 puntos.

— Caminos rurales de interés particular (acceso a una explotación agraria): 25 puntos.

2) Extensión del municipio en $km^2$:

— Menos de 15: 10 puntos.

— 15-etik 30-era: 15 puntu.

— 30 baino gehiago: 20 puntu.

3) Sarbide hori duten ustiategietatik gutxienez baten lan bolumena, amaierako Nekazaritzako Lan Unitateetan neurtuta:

— Lan bolumena > amaierako NLU 1: 20 puntu.

— Lan bolumena 1 ≥ 0,5 amaierako NLU: 10 puntu.

— Lan bolumena < 0,5 amaierako NLU: 0 puntu.

4) Benetako distantzia, bidearen hasieratik udaletxera edo toki erakunde txikiaren egoitzara:

— 1 km baino gutxiago: 5 puntu.

— 1-2 km: 10 puntu.

— 2-3 km: 15 puntu.

— 3 km gorakoa: 20 puntu.

5) Bidea kokatuta dagoen landagunearen zonifikazioa (Euskadiko Autonomia Erkidegoaren arabera).

— G1, G2, G3 landaguneak: 30 puntu.

— G4, G5, G6 landaguneak: 15 puntu.

Aurkeztutako proiektu bakoitza balorazio irizpideen arabera baloratuko da, eta balorazio horren arabera emango dira laguntzak. Kreditu nahikoa ez badago, lehentasuna izango dute puntuazio handiena lortu duten proiektuak; berdinketa egonez gero, berriz, aurrekontu txikiena duenak izango du lehentasuna. Hala ere, aurkeztu diren eta ezarritako baldintzak betetzen dituzten eskaera guztiei kopururik handienean erantzuteko adina kreditu baldin badago, ez da beharrezkoa izango balorazioa egitea, ez eta proiektuen arteko lehentasun hurrenkera ezartzea ere.

Deialdia ebatzi ondoren onuradunen batek laguntzari uko egiten badio, eta horrek kreditua sortzea eragiten badu, kreditu hori beste onuradun bati eman dakioke, beste deialdi bat egin beharrik gabe; beste onuradun hori izango da onuradun izateko baldintzak bete arren nahikoa kreditu ez dagoelako laguntzarik gabe geratu direnen zerrendako hurrengoa, balorazio irizpideen ondorioz erabaki den hurrenkeraren arabera. Hala ere, baldintza izango da uko egitearekin askatu den kreditua nahikoa izatea ukatutako laguntzetakoren bati gutxienez erantzuteko. Aukera hau baliatuz gero, jakinarazi egingo zaio dagokion entitateari, hamar eguneko epe luzaezina emanez dirulaguntza proposamena onartzeko; proposamena onartzean dirulaguntza emateko erabakia hartuko da eta entitateari jakinaraziko zaio.

9. *Dirulaguntzen zenbatekoa.*

Entitate eskatzaile bakoitzari 35.000 euro emango zaizkio gehienez deialdi bakoitzeko. Dirulaguntza zuzena izango da, egindako inbertsioen araberakoa, kontuan hartuta portzentaje hauek, biztanleria kopurua eta jarduketa mota:

— De 15 a 30: 15 puntos.

— Más de 30: 20 puntos.

3) Volumen de trabajo de al menos una de las explotaciones agrarias a las que da acceso el camino, medido en UTAS finales:

— Volumen de trabajo > 1 UTA final: 20 puntos.

— Volumen de trabajo 1 ≥ 0,5 UTA final: 10 puntos.

— Volumen de trabajo < 0,5 UTA final: 0 puntos.

4) Distancia real desde el inicio del camino al Ayuntamiento o sede de la entidad local menor:

— Menos de 1 km: 5 puntos.

— De 1 a 2 km: 10 puntos.

— De 2 a 3 km: 15 puntos.

— Más de 3 km: 20 puntos.

5) Zonificación rural donde esté ubicado el camino (según zonificación Comunidad Autónoma Euskadi):

— Zonas rurales (G1, G2, G3): 30 puntos.

— Zonas rurales (G4, G5, G6): 15 puntos.

Las ayudas se concederán en función de la valoración otorgada a cada proyecto presentado según los criterios de valoración. En caso de insuficiencia de crédito tendrán prioridad los proyectos con mayor puntuación y en caso de empate los de menor presupuesto. No obstante, para las solicitudes presentadas que reúnan los requisitos establecidos, podrá no efectuarse la valoración ni fijarse un orden de prelación entre las mismas, en caso de que el crédito consignado en la convocatoria fuera suficiente para la atención de todas ellas en la máxima cuantía posible.

Una vez resuelta la convocatoria, si se generase crédito por renuncia por parte de las entidades que resultaron beneficiarias podrá asignarse, sin necesidad de nueva convocatoria, a la siguiente de la lista que reúna los requisitos y que no haya sido beneficiaria por falta de crédito, siguiendo el orden que haya resultado de la aplicación de los criterios de valoración establecidos, y siempre y cuando con la renuncia se haya liberado crédito suficiente para atender al menos una de las solicitudes denegadas. Esta opción se comunicará a la entidad correspondiente, a fin de que acceda a la propuesta de subvención en el plazo improrrogable de diez días; una vez aceptada, se dictará y notificará a la entidad el acto de concesión de la subvención.

9. *Cuantía de las ayudas.*

La subvención máxima otorgada a cada entidad solicitante por convocatoria será de 35.000 euros. Las ayudas consistirán en subvención directa sobre el importe de las inversiones realizadas en los siguientes porcentajes, conforme al número de habitantes y la tipología de la actuación:

| | *<1.000* | *1.000 - 2.500* | *2.500 - 10.000* | *>10.000* |
|---|---|---|---|---|
| Landa bide berriak egitea, lehenengo asfaltatzea edo hormigonatzea.<br>Construcción de nuevos caminos rurales, primer asfaltado u hormigonado. | 85 % | 80 % | 65 % | 55 % |
| Nekazaritza ustiategietarako landa bideak konpontzea, egokitzea eta hobetzea.<br>Reparación, adecuación y mejora de caminos rurales a explotaciones agrarias. | 75 % | 65 % | 55 % | 45 % |
| Landa bideen eta nekazaritza ustiategien sarreren seinaleztapena.<br>Señalización de caminos rurales, acceso a explotaciones agrarias. | 65 % | 55 % | 45 % | 35 % |

EK\CV GAO-I-2021-01194

Diruz lagundu daitezkeen proiektu guztiei dagozkien laguntzen hasierako kalkulua egin ondoren deialdiko kreditua oraindik agortu ez bada, 15.000 euro handituko da entitate eta deialdi bakoitzeko gehieneko dirulaguntza (aurreko paragrafoan adierazi dena), eta kreditu soberakina proiektu guztien artean banatuko da, gehieneko muga berri horren arabera. Gehieneko muga hori behin eta berriz gehitzen joan daiteke, deialdiko kreditua agortu arte. Hala ere, inoiz ezingo dira gainditu aurreko paragrafoan adierazitako dirulaguntza portzentajeak.

Behin proiektuen puntuazioa ezarrita, entitate batek bi proiektu edo gehiagorako laguntza jasotzeko eskubidea badu eta horien batuketak deialdiaren banakako gehieneko laguntza zenbatekoa gainditzen badu, laguntza kopuru handiagoko proiektua edo proiektuak lagunduko dira lehenbizi, kanpoan utzita laguntza kopuru txikiagokoa/k, nahiz eta puntuazio handiagoa eduki.

Lanen exekuzioaren arabera posible denean, proiektuak faseka edo etapaka aurkeztu daitezke; horrelakoetan, deialdi honetan arautitako laguntzen hurrengo deialdietara ere aurkez daitezke.

Oinarri hauen arabera emango diren laguntzak murriztu egingo dira diruz lagundutako jarduketa edo inbertsioen amaierako kostua onartutakoa baino txikiagoa denean.

*10. Dirulaguntzak emateko ebazpena.*

Laguntzak eman edo, hala dagokionean, ukatzeko erabakia Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko Departamentuko foru diputatuak hartuko du.

Urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 45.1.b) artikuluan ezarritakoari jarraituz, dirulaguntzei buruzko ebazpena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da. Argitalpen horrek banakako jakinarazpena ordeztuko du; eta jakinarazpena egintzat hartuko da lege ondorio guztietarako argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Ebazpenak entitate eskatzaileak eta aurkeztutako proiektuak eta jarduerak identifikatu ditu. Dirulaguntza jasoko dutenentzat ebazpenak ezarriko du zein den diruz lagungarritzat hartutako gastua, zein portzentajetan izango den diruz lagundua, emandako laguntzaren zenbatekoa eta baita hori finantzatzeko erabiliko den kontu saila eta urtekoa ere. Jarduera bati dirulaguntza ukatu bazaio, ukatzearen arrazoia zein den adieraziko da.

Deialdiaren ebazpena eman ondoren ez da aldaketarik onartuko bertan onartutako proiektuen zerrendan.

Ebazpena eman eta jakinarazteko gehieneko epea sei hilabetekoa izango da, deialdia argitaratzen denetik aurrera kontatzen hasita. Epe hori amaitutakoan ez bada ebazpena jakinarazi, eskatzaileek eskaera ezetsitzat joko dute, administrazioaren isiltasunagatik.

*11. Onuradunen betebeharrak.*

Onuradunek dirulaguntza onartzeak esan nahi du martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauan, Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzkoan, ezarritako betebeharrak eta oinarri hauetatik ondorioztatutakoak bete behar dituztela.

Bereziki, dirulaguntzen xede diren jarduera edo jarduketen finantzaketaren izaera publikoari behar adinako publizitate egokia eman beharko zaio, Gipuzkoako Foru Aldundiaren irudi instituzionala txertatuz (Departamentuaren logotipoa), eta baita finantzaketa publikoari buruzko legendak ere karteletan, plaka oroigarrietan, inprimatutako materialetan (argitalpenak, liburuxkak, eta abar), komunikabide elektroniko nahiz ikus-entzunezkoetan (ikus-entzunezko materialak, publizitatea, web orriak, eta abar), edo komunikabideetan egindako aipamenetan.

*12. Dirulaguntzen arteko bateragarritasuna edo bateraezintasuna.*

Oinarri hauen xede diren dirulaguntzak bateragarriak izango dira beste edozein administrazio edo erakunde publiko nahiz

Si efectuado el cálculo inicial de las ayudas correspondientes a todos los proyectos subvencionables, no se agotara el crédito de la convocatoria, se aumentará en 15.000 euros la cuantía máxima por entidad y convocatoria señalada en el párrafo anterior y se repartirá el remanente entre los proyectos conforme al nuevo límite. Se aplicarán incrementos en dicha cuantía de forma sucesiva hasta el agotamiento del crédito de la convocatoria, sin que en ningún caso puedan superarse los porcentajes de subvención señalados en el párrafo anterior.

Una vez determinada la puntuación de los proyectos, en caso de que a una entidad le correspondiera subvención para dos o más caminos y la suma de los importes exceda la cuantía individual máxima de la convocatoria, se concederá la subvención a aquel o aquellos a los que corresponda mayor importe de subvención, excluyéndose el o los de menor importe aun cuando su puntuación hubiera sido mayor.

En la medida en que su ejecución lo permita, se permitirá la presentación de proyectos en fases o etapas, pudiendo acogerse a convocatorias sucesivas de las ayudas reguladas en estas bases.

Las ayudas concedidas al amparo de estas bases se modificarán a la baja cuando el costo total final de las inversiones o actuaciones subvencionadas sea inferior al aprobado.

*10. Resolución de concesión.*

La resolución sobre la concesión o, en su caso, denegación de las ayudas corresponderá al diputado o diputada foral del Departamento de Promoción Económica, Turismo y Medio Rural.

Al amparo de lo dispuesto en el artículo 45.1.b) de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, la resolución de la convocatoria será objeto de publicación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, sustituyendo dicha publicación a la notificación individual y entendiéndose efectuada ésta a todos los efectos legales desde el día siguiente a dicha publicación.

La resolución identificará a las entidades solicitantes y los proyectos o actuaciones presentadas, estableciendo para aquellos a los que se conceda subvención el gasto considerado subvencionable y el porcentaje en que será subvencionado, el importe de la ayuda concedida, así como la partida y anualidad con la que se financiará. Para aquellas actuaciones a las que se deniegue la subvención se indicará la causa de dicha denegación.

Realizada la resolución de la convocatoria no se admitirán cambios en el listado de proyectos aprobados en la misma.

El plazo máximo para dictar y notificar la resolución que corresponda será de seis meses, a contar a partir de la publicación de la convocatoria. Transcurrido dicho plazo sin haberse notificado la resolución, las entidades interesadas podrán entender desestimada su solicitud por silencio administrativo.

*11. Obligaciones de las entidades beneficiarias.*

La aceptación de la subvención por parte de las entidades beneficiarias implica la sujeción a las obligaciones vigentes establecidas con carácter general en la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa y las que se desprenden de las presentes bases.

En particular, estarán obligadas a dar la adecuada publicidad del carácter público de la financiación de las actividades o actuaciones objeto de subvención, mediante la inclusión de la imagen institucional de la Diputación Foral de Gipuzkoa (logotipo del Departamento), así como leyendas relativas a la financiación pública en carteles, placas conmemorativas, materiales impresos (publicaciones, folletos, etc.), medios electrónicos o audiovisuales (material audio-visual, publicidad, páginas web, etc.), o bien en menciones realizadas en medios de comunicación.

*12. Compatibilidad o incompatibilidad con otras subvenciones.*

Las subvenciones objeto de las presentes bases serán compatibles con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos

pribatuk emandako xede bereko beste dirulaguntza, laguntza, sarrera edo baliabide batzuekin, direla estatukoak, Europar Batasunekoak edo nazioarteko erakundeenak: betiere ez badira dagokion jarduketaren kostua edo europar araudiak ezarritako mugak gainditzen; eta horren inguruan beste dirulaguntzak arautzen dituzten araudiek ezar dezaketenaren kalterik gabe.

Oinarri hauetan jasotakoekin bateragarriak diren dirulaguntzak jaso dituzten onuradunek laguntzak ematen dituen organoari jakinarazi beharko diote modu frogagarrian, hala legokiokeen kasuan, egindako itzulketaren agiriaren kopia erantsita.

Dirulaguntza emateko kontuan hartu diren baldintzetan edozein aldaketa gertatuz gero, eta nolanahi ere, oinarri hauetan baimendutako kasuez kanpo dirulaguntza hauekin batera laguntzak jasoz gero, dirulaguntza emateari buruzko ebazpena aldatua izan daiteke.

*13. Ordainketa eta justifikazioa.*

13.1. Proiektuetan aurreikusitako epeak ikusita, eta erabilgarri dagoen aurrekontuaren arabera, laguntza emateko ebazpenak epe bat ezarriko du, onartutako inbertsioak gauzatu eta justifikatzeko. Nolanahi ere, diruz lagundu daitezkeen inbertsioak ondoko epean burutu eta justifikatu beharko dira:

— Deialdiaren ekitaldiaren kargura subentzionatutako inbertsioak urte horretako urriaren 31 baino lehen justifikatu beharko dira.

— Deialdiaren ondorengo ekitaldiaren kargura subentzionatutako inbertsioak urte horretako irailaren 15a baino lehen justifikatu beharko dira.

— Laguntza bi urte horietan banatzen bada, justifikazio partzialak aurkeztu beharko dira aurreko paragrafoetan adierazitako epeetan (urte bakoitzean emandako laguntzarekiko zenbateko proportzionalekoak).

Justifikazioak epe barruan aurkezten ez badira, laguntzak galdu egingo dira.

Hasierako eskaeraren eta egin den behin betiko proiektuaren artean egon daitezkeen aurrekontu desbideratzeak obrak sustatzen dituen entitatearen kargurakoak izango dira.

Deialdi bakoitzean onartutako proiektuen exekuzioa komunikatzeko eta horien jarraipena egiteko landa garapeneko eskualdeko elkarteen laguntza eduki daiteke.

13.2. Dirulaguntza ordaintzeko baldintza izango da lagundutako inbertsioa egitea, eta ordainketa hori aginduko da jaso eta konprobatu ondoren dirulaguntzaren kontu zurigarria, egin diren inbertsioei dagozkien fakturak/ziurtagiriak eta, kasua bada, ordainagiriak jasoko dituena (bananduta aurkeztu beharko direnak, diruz lagundutako bide bakoitzerako); entitate onuradunak lagundutako jarduera finantzatzeko beste dirusarrera edo laguntzaren bat jasotzen badu, horren zenbatekoa eta jatorria adierazi beharko ditu.

Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzko martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauaren 30.2 artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako, gastua egindakotzat eta lagungarritzat jo ahal izango da, nahiz eta ordainduta ez izan, baina kasu horretan entitateak ordainketa hori egin duela egiaztatu beharko du laguntza kobratu ondorengo 30 egunetan.

*14. Dirulaguntzak itzultzea.*

Onuradunak ez baditu oinarri hauetan eta gainerako araudi aplikagarrietan ezarritako baldintza eta betebehar guztiak betetzen, dirulaguntza osoa edo zati bat eta dagozkion berandutza interesak itzuli beharko ditu, martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauak 35. artikuluan ezarritakoari, eta hori garatzeko erregelamenduko 63. artikuluari eta ondorengoei jarraiki; eta hortik ondorioztaturi-

para la misma finalidad, procedentes de cualesquiera administraciones o entes públicos o privados, estatales, de la Unión Europea o de organismos internacionales, siempre que no se rebase el costo de las actuaciones subvencionadas ni los límites establecidos en la normativa comunitaria, y sin perjuicio de lo que al respecto pudiera establecer la normativa reguladora de las otras subvenciones concurrentes.

La entidad beneficiaria que obtuviere una subvención compatible con las ayudas contempladas en estas bases deberá comunicarlo de modo fehaciente al órgano concedente, acompañando copia de la carta del reintegro que, en su caso, hubiera realizado.

Toda alteración de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión de la subvención y, en todo caso, la obtención concurrente de otras aportaciones fuera de los casos permitidos en las presentes bases, podrá dar lugar a la modificación de la resolución de concesión.

*13. Justificación y pago.*

13.1. A la vista de los plazos previstos en los proyectos y en función de las disponibilidades presupuestarias existentes, la resolución de concesión de la ayuda establecerá el plazo para la ejecución y justificación de las inversiones aprobadas. En cualquier caso, las inversiones auxiliables deberán ejecutarse y justificarse en los siguientes plazos:

— Las subvencionadas con cargo al ejercicio de la convocatoria habrán de estar justificadas antes del 31 de octubre de dicho año.

— Las inversiones subvencionadas con cargo al ejercicio siguiente al de la convocatoria habrán de estar justificadas antes del 15 de septiembre de dicho año.

— En caso de que la ayuda se distribuya en ambos años, habrán de presentarse justificaciones parciales en los plazos señalados en los párrafos anteriores (por importe proporcional a la subvención concedida en cada año).

La falta de justificación en plazo conllevará la pérdida de las subvenciones correspondientes.

Toda desviación presupuestaria introducida en el proyecto definitivo realizado respecto al de la solicitud inicial, correrá a cuenta de la entidad promotora de las obras.

Se podrá contar con las Asociaciones de Desarrollo Rural comarcales en labores de comunicación y seguimiento en la ejecución de los proyectos aprobados en cada convocatoria.

13.2. El pago de la subvención estará condicionado a la realización de la inversión subvencionada, efectuándose dicho pago una vez recibida y comprobada la cuenta justificativa de la subvención, que contendrá las facturas/certificaciones y, en su caso, los justificantes de pago relativos a las inversiones ejecutadas (que se presentarán de forma individualizada para cada uno de los caminos subvencionados); en caso de que la entidad beneficiaria reciba otros ingresos o subvenciones para financiar la actividad subvencionada, deberá informar sobre su importe y procedencia.

A efectos de lo dispuesto en el artículo 30.2 de la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa, se admitirá como realizado y subvencionable el gasto aun cuando no hubiera sido efectivamente pagado, si bien en este caso la entidad habrá de acreditar la realización de dicho pago en un plazo máximo de 30 días desde la fecha de cobro de la subvención.

*14. Reintegro de las subvenciones.*

El incumplimiento por parte de la entidad beneficiaria de cualquiera de los requisitos y obligaciones establecidos en las presentes bases y demás normativa aplicable, dará lugar a la obligación de reintegrar la subvención, total o parcialmente, junto con los intereses de demora correspondientes, conforme a lo dispuesto en el artículo 35 de la Norma Foral 3/2007, de

ko erantzukizunei ere aurre egin beharko die, foru arau horren 49. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoari jarraituz.

*15. Araudi aplikagarria.*

Oinarri hauen xede diren dirulaguntzei, bertan ezarritakoaz gain, honako hauek aplikatuko zaizkie: martxoaren 27ko 3/2007 Foru Araua, Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzkoa; eta hori garatzeko erregelamendua, apirilaren 29ko 24/2008 Foru Dekretuaren bidez onartutakoa.

II. ERANSKINA

*Gipuzkoako Lurralde Historikoko landa bideetarako dirulaguntzak (2021eko deialdia).*

*1. Eskaerak aurkezteko epea.*

2021ko deialdian landa bideetarako inbertsioak finantzatzeko laguntza eskaerak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean deialdia argitaratzen den egunetik 20 laneguneko epean aurkeztu beharko dira. Aurkezteko epea larunbata, igandea edo egun baliogabea bada, epea hurrengo egun baliodunera pasatuko da.

*2. Aurrekontu kredituak.*

Deialdi honetarako aurrekontu zuzkidura guztira 1.500.000,00 eurokoa da, 1.0440.400.761.01.01.2021 (1.200.000,00 €) eta 5. 0440.400.761.01.01.2022 (300.000,00 €) kontu sailen kargura.

Edonola ere, espedientea aldez aurretik tramitatzen denez, dirulaguntzak eman ahal izateko ezinbestekoa izango da haiek ematea erabakitzen den unean kreditu egoki eta nahikoa egotea Gipuzkoako Lurralde Historikoaren 2021. urterako aurrekontu orokorretan.

*3. Aurkeztu beharreko dokumentazioa.*

Eskaera, Gipuzkoako Foru Aldundiko egoitza elektronikoan (https://egoitza.gipuzkoa.eus) eskuragarri jarritako berariazko inprimakiaren arabera; bertan jasoko dira, alde batetik, erantzukizuneko adierazpena –martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzkoak, 12. artikuluan ezarritako onuradun izaera lortzeko ezein debekurik ez izatearena-; eta bestetik, dirulaguntza jaso gabe geratutako inbertsio zatia entitateak finantzatzeko konpromisoa.

— Entitate eskatzailearen ziurtagiria, non egiaztatzen den bidea udal titularitatekoa edo erabilera publikokoa dela.

— Proiektua, nahikoa lege ahalmen duen teknikari eskudunak idatzitakoa eta banan-banan dokumentu hauek jasoko dituena:

— Memoria.

— Aurrekontua.

— Planoa/k, bidearen geolokalizazioa barne.

— Kasua bada, baldintza teknikoen agiria.

*4. Gutxieneko inbertsioa.*

2021eko deialdian, diruz lagunduko diren proiektuetarako ezartzen den gutxieneko inbertsioa (aurrekontua) 4.000 euro da.

27 de marzo, de subvenciones, y artículos 63 y siguientes de su reglamento de desarrollo, y a las responsabilidades que de ello pudieran derivarse, según lo dispuesto en el artículo 49 y siguientes de dicha norma foral.

*15. Normativa aplicable.*

Las subvenciones objeto de las presentes bases se regirán, además de por lo dispuesto en las mismas, por la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa, y su reglamento de desarrollo, aprobado por Decreto Foral 24/2008, de 29 de abril.

ANEXO II

*Ayudas para caminos rurales del Territorio Histórico de Gipuzkoa (convocatoria 2021).*

*1. Plazo de presentación de solicitudes.*

Las solicitudes de ayuda para caminos rurales en la convocatoria 2021 podrán presentarse en el plazo de 20 días hábiles a partir de la fecha de publicación de la convocatoria en el Boletín Oficial de Gipuzkoa. Si la finalización del plazo recayera en sábado, domingo o inhábil se trasladará al día hábil inmediatamente siguiente.

*2. Créditos presupuestarios.*

La dotación presupuestaria para esta convocatoria asciende a la cantidad total de 1.500.000,00 euros, con cargo a las partidas presupuestarias 1.0440.400.761.01.01.2021 (1.200.000,00 €) y 5.0440.400.761.01.01.2022 (300.000,00 €).

En todo caso, y dada la tramitación anticipada del expediente, la concesión de las subvenciones queda condicionada a la existencia de crédito adecuado y suficiente en los presupuestos generales del Territorio Histórico de Gipuzkoa para el año 2021 en el momento de la resolución de la concesión.

*3. Documentación a presentar.*

— Solicitud, conforme al formulario disponible en la sede electrónica de la Diputación Foral de Gipuzkoa (https://egoitza.gipuzkoa.eus), que incluirá la declaración responsable de no hallarse incursa la entidad en ninguna de las prohibiciones para obtener la condición de persona beneficiaria establecidas en el artículo 12 de la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa, así como el compromiso de financiación por la entidad de la parte de inversión no subvencionada.

— Certificado de la entidad solicitante en el que se acredite la titularidad municipal o uso público del camino.

— Proyecto redactado por personal técnico competente con atribuciones legales suficientes, que incluirá, de forma separada, los siguientes documentos:

— Memoria.

— Presupuesto.

— Plano/s, con geolocalización del camino.

— En su caso, pliegos de condiciones técnicas.

*4. Inversión mínima.*

Para la convocatoria 2021, la inversión (presupuesto) mínima de los proyectos subvencionados se establece en 4.000 euros.

EK\CV GAO-I-2021-01194

Gipuzkoako Foru Aldundia
Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko Departamentua

Diputación Foral de Gipuzkoa
Departamento de Promoción Económica, Turismo y Medio Rural

LANDA BIDEETARAKO DIRULAGUNTZA ESKAERA.
2021EKO DEIALDIA
(Banakako inprimakia; inprimaki bat diruz laguntzeko eskatutako bide bakoitzeko)

SOLICITUD DE AYUDA ECONÓMICA - PROGRAMA CAMINOS RURALES. CONVOCATORIA 2021
(Formulario individual; uno por cada camino para el que se solicita subvención)

| |
|---|
| Udala edo tokiko erakunde txikia / Ayuntamiento o Entidad local menor: |
| Bidearen izena / Nombre del camino: |

| Aurrekontua / Presupuesto | Hasiera / Inicio | Bukaera / Fin | |
|---|---|---|---|
| Aurrekontua eta inbertsioen egutegia (gutxi gora beherakoa) / Presupuesto y calendario (aproximado) de las inversiones | | | |

------------------------------------------

BIDEAREN EZAUGARRIAK

1) Bidearen interesa:

□ Orokorra.1 (sarbidea 4 nekazaritza ustiategi baino gehiagora)
□ Orokorra.2 (sarbidea 2-4 nekazaritza ustiategietara)
□ Banakako (sarbidea nekazaritza ustiategi bakarrera)

2) Udalerriaren hedadura km²-etan:

□ 15 baino gutxiago
□ 15-tik 30-ra
□ 30 baino gehiago

3) Bideak sarbide ematen dion ustiategietako baten (gutxienez) lan bolumena, amaierako NLU-tan neurtuta (*Landa Garapeneko Elkarteek datu hori egiaztatu edo osatuko dute Gipuzkoako Nekazaritzako Ustiategien Erregistroan jasotako informazioarekin*): ..........

CARACTERÍSTICAS DEL CAMINO

1) Camino de interés:

□ General.1 (acceso a más de 4 explotaciones agrarias)
□ General.2 (acceso a 2-4 explotaciones agrarias)
□ Individual (acceso a una explotación agraria)

2) Extensión del municipio en km²:

□ Menos de 15
□ De 15 a 30
□ Más de 30

3) Volumen de trabajo de al menos una de las explotaciones a las que da acceso el camino, medido en UTAS finales (*este dato se contrastará o completará por las Asociaciones de Desarrollo Rural con la información obrante en el Registro de Explotaciones Agrarias de Gipuzkoa*): ..........

| Bideak sarbide ematen dion nekazaritza ustiategiaren/ustiategien datuak / Datos de la/s explotación/es agraria/s a la/s que da acceso el camino | | | |
|---|---|---|---|
| Izena / Nombre | Nekazaritza Ustiategien Erroldako Kodea / Código Registro Explotaciones Agrarias | Ordezkari titularraren izen-abizenak/sozietate izena / Nombre y apellidos/razón social titular representante | Ordezkari titularraren IFK / CIF titular representante |
| | | | |
| | | | |
| | | | |
| | | | |
| | | | |
| | | | |
| | | | |

4) Benetako distantzia, bidearen hasieratik udaletxera/toki erakunde txikiaren egoitzara:

□ Km 1 baino gutxiago
□ 1 km-tik 2 km-ra
□ 2 km-tik 3 km-ra
□ 3 km baino gehiago

4) Distancia real desde el inicio del camino al Ayuntamiento o sede de la entidad local menor:

□ Menos 1 km
□ De 1 a 2 km
□ De 2 a 3 km
□ Más de 3 km

EK\CV GAO-I-2021-01194

Gipuzkoako Foru Aldundia
Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko Departamentua

Diputación Foral de Gipuzkoa
Departamento de Promoción Económica, Turismo y Medio Rural

5) Bidea kokatuta dagoen landa zonifikazioa (Euskadiko Autonomia Erkidegoaren arabera):

□ Landaguneak G1, G2, G3
□ Landaguneak G4, G5, G6

5) Zonificación rural donde esté ubicado el camino (según zonificación Comunidad Autónoma Euskadi):

□ Zonas rurales G1, G2, G3
□ Zonas rurales G4, G5, G6

----------------------------------------

Eransten diren agiriak:

- Udalaren edo tokiko erakunde txikiaren ziurtagiria, non egiaztatzen den bidea udal titularitatekoa edo erabilera publikokoa dela.

- Proiektua, nahikoa lege ahalmen duen teknikari eskudunak idatzitakoa eta banan-banan dokumentu hauek jasotzen dituena:

- Memoria
- Aurrekontua
- Planoa/k, bidearen geolokalizazioa barne
- Kasua bada, baldintza teknikoen agiria

Documentación que se adjunta:

- Certificado del Ayuntamiento/Entidad local menor acreditativo de la titularidad municipal o uso público del camino.

- Proyecto redactado por personal técnico competente con atribuciones legales suficientes, que incluye, de forma separada, los siguientes documentos:

- Memoria
- Presupuesto
- Plano/s, con geolocalización del camino
- En su caso, pliegos de condiciones técnicas

----------------------------------------

Deklarazioa:

Honen bidez adierazten dut, jarduera dirulaguntza jasotzen badu, ordezkatzen dudan erakundeak diruz lagunduko ez den zatiari dagokion zenbatekoa finantzatzeko beharrezkoa den kreditu zuzkidura egiteko konpromisoa hartzen duela, inbertsioaren xedea errespetatuko duela, eta Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko Departamentuaren esku jarriko dituela egindako inbertsioak edo jarduketak egiaztatzeko beharrezkoak diren agiriak.

Declaración:

Mediante la presente declaro que, en caso de que la actuación resulte subvencionada, la entidad a la que represento asume el compromiso de consignación de crédito para financiar el importe de la actuación en la parte que no sea objeto de subvención, comprometiéndose asimismo a respetar el destino de la inversión y a poner a disposición del Departamento de Promoción Económica, Turismo y Medio Rural la documentación necesaria para verificar las inversiones o gastos realizados.

EK\CV GAO-I-2021-01194